

ESKALADAKO ISTORIO LABUR BAT...

1976ko ekainaren 28an, Oulettes de Gaube aterpetik (frantziar Pirinioak) hiruko bi euskal sokada atera ziren: Martin Garcia, Mendizabal Regil eta Marcos Alustiza batetik eta Fernando Terradillos, Sebastian Sanchez eta Jose Luis Orbegozo bestetik. Aterpe honetako ikusmira itzela da: kotoi itsurako lore gozoz estalitako bailara erreka saltariak zeharkatzen dute. Bailararen gaineko morrena eta ezerezetik eskegitako izotzen gainetik, Vignemaleko ipar hormatzarrek osatutako zirku bertikalak aldi berean erakarpen eta ukatze sentimendua pizten dute. Seiko lagun taldeak begirada zirkuaren eskuineko horman finkatua zuten: Pique Longue mendiko (3.298 m) ipar horma, 950 metroko hormatzarra.



Eskalada filmatzeko, Fernandoren sokada aurretik eskalatzeko hasi zen. Urteetan zehar Euskal Herri, Pirinio nahiz Alpeetan eskarmentua izan ondoren, metroak estutasun handirik gabe eskalatu zituzten, zailtasun handienak atzean utziz. Baina bidea amaitzeko zeudela, aurretik zihoan Jose Luis erori eta erorketan Fernando eta Sebastian lotuta zeuden bilgunea eramanez, hiruak horman behera amildu ziren. Istripuak herria sakon kolpatu zuen, Fernando herritarra baitzen. Egun, hiru mendizale hauen oroimenez Murumendin gurutze eta plaka bat eraikita dago.

Istripu honen zehaztasunen berri hainbat urte beranduago Ander (Fernandoren semea) lagunaren bidez izan nuen. Nik ez nuen Fernando ezagutu, baina Anderrek kontatutako eskalada eta irteerek berarekiko nolabaiteko miresmena piztu zidaten.

2018ko abuztuaren 3an Asier eta biok hormatzar hau eskalatzeari eman genion. Gure asmoen berri Anderrek bazekien eta eskalada bere aitari omenaldia egiteko aprobetxatuko genuela esan nion, gure modura, inongo zalapartarik gabe.

Eta a zer nolako eskalada!! Vignemalek fisiko, psikologiko eta teknikoki dena eskatu eta dena eman genion: indar, gogo eta ahalmena. Gutxi gorde genuen, jaitsierako behar genuen indar apurra besterik ez. Ezusteko batzuk eta ezbehar txiki baten ondoren, bibak lekura esnatu ginenetik hogeita bat ordura irisi ginen, hustuta, non zapaltzen genuen begiratu gabe, pausu bat bestearen atzetik automatikoki emanaz. Eguzkiak erreta, ezpainak zartatuak eta azala urratuta, errenditutako mendizaleen itsura genuen arren, begiak zoriontasunik zabal eta sakonenaren distira ziren, Vignemaletik zerbait eramaten ari ginen seinale. Begiak arimaren ateak badira, gure arimak bakean ziren.

Gailurretik jaisten ari ginela Anderri mezu bat bidaltzeko aprobetxatu nuen: “Aupa Terra!! Gaur Vignemalen iparra eskalau deu. Izugarri gogoratu naiz zurekin. Besarkada ta muxu handi bat!!!”. Anderren telefonoaren pantaila bihotzetik ihes egindako malkoek busti zuten. Mezua bidali ondoren, Pirinioetako glaziar galdu baten erdian, gailurrean isuri gabeko malkoak isuri nituen, amari, aitonari, Anderren aitari, bizitzari, eskerrak emanaz.

Mendiak harkaitz, izotz, baso eta erreka aparte, bertatik pasatakoen historia eta bizitako esperientziaz osatuta daude, batzuetan gozoak, batzuetan garratzak eta batzuetan mingarriak... Azken finean, mendian uzten dugun arrastoa infinituan puntu galkorra besterik ez da, mendiak eragindako orbaina aldiz, ez da sekula ezabatzen.

Fernando Terradillosen oroimenez.

Xabi Mujika “Smithy”